




AURKIBIDEA

Sarrera.....	6
1. Etapa Bilbotik Lekeitiora (111 km).....	10
2. Etapa Lekeitiotik Donostiara (115 km).....	46
3. Etapa Donostiatik Baionara (80 km).....	82
4. Etapa Donibane Lohizunetik Izabara (170 km).....	106
5. Etapa Izabatik Iruñiera (120 km).....	132
6. Etapa Iruñetik Erriberrira (120 km).....	176
7. Etapa Erriberritik Vianara (110 km).....	196
8. Etapa Vianatik Gasteizera (150 km).....	216
9. Etapa Gasteiztik Bilbora (160 km).....	248



SARRERA

Gidaliburu honetan Euskal Herria zeharkatuko duen 1.130 kilometroko bidaia zirkularra aurkeztu nahi dugu. Bederatzi ataletan banatuta, ibilbidea Bizkaian abiatuko da, Gipuzkoako kostaldetik Baionaraino igoko da eta jarraian Pirinioak isurialde bietatik besarkatuko ditu, Nafarroa alderik alde zeharkatu, Araban barrena osteratxo polita egin eta abiapuntura itzuliko da. Eusko Ikaskuntzak eta Euskaltzaindiak jaso duten bezala, izen egokia da Euskal Herria “zazpi probintzia edo herrialdeen osotasuna adierazteko eta izen hori ez da izate politiko administratibo konkretu baten baliokide”.

Euskal Herria ez denez erakunde administratibo baten gorpuztu, jakina denez, gaur egun zazpi herrialdeok zenbait egitura politiko-tan sakabanatuta daude. Frantziar Estatuan Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeak aurkituko ditugu: Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zube-

roa. Hirurak Pirinio Atlantikoen departamentuan daude, Bearnorekin batera. Espainiar Estatuko lau herrialdeak, berriz, erkidego autonomiko bitan banatuta daude: alde batetik, Euskal Erkidego Autonomoa (EAE) edo Euskadi dago, Eusko Jaurlaritza buru eta Gasteiz hiriburu dituen; bestetik, Nafarroako Foru Erkidegoa, Nafarroako Gobernua buru eta Iruñea hiriburu.

Gida honetako bederatzi ataletan Euskal Herriko lekurik interesgarrienak jaso ditugu, izan herrixka ezezagun, izan hiri handi. Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Iruñeari leku zabala eskaini diegu. Horietan hiri barruko ibilbideak, museoak, ospakizunak eta jakingarri nagusiak bildu ditugu.

Natura eremuei ere aparte-ko garrantzia aitortu diegu, naturaz gozatzeko aukera ematen duten leku pribilegiatuei alegia. Zain ditugu parke naturalak, biosfera erreserbak, geoparke sarean sartutako kostaldeko flyschak, oihan sarriak eta irudi sinesgaitzak sortzen dituzten ur-jauziak.

Testu nagusiaren lagungarri, irakurleak laukiak eta leihoak aurkituko ditu ertzetan, lekuan lekuko berezitasunak are gehiago azpimarratzeko: produktu gastronomikoak, jaiak, begiratoki ikusgarriak, museoak edo ondare kultureleko harribitxiak.

Abiatu aurretik, azken gomendioa. Ibilbideok batez ere bigarren mailako errepideetatik doaz, paisaiatz gehiago eta hobeto gozatzeko asmoz. Kontu handiz gidatuko dugu eta, bide-bazterrean gelditu behar badugu, hobe da horretarako egokitu diren lekuetan egitea, ezustekoak saihesteko. Ondo ibili!



THE BASQUE ROUTE

Gidaliburu honetako ibilbideetako batzuk Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailak, Basquetour turismoaren euskal agentziaren bidez, Euskal Erkidego Autonomoko tokirik lilugarrienak ezagutzera emateko diseinatu dituen bideetatik doaz.

The Basque Route bidaia harrigarria da, trafiko gutxiko errepideetan barrena doan 950 kilometroko ibilbide erdizirkularra, erlojuaren orratzen norabidean egiteko pentsatuta. Kilometroaz kilometro Euskadiren aurpegirik ikusgarrienak azalduko zaizkigu.

Mendietako eta ibarretako berdetik itsasoko urdinera eramango gaituzten zortzi ibilbide dira, orotara. Leku horiekin euskal herri-tarrek lotura sendoak garatu dituzte eta haien nortasunean islatzen den izaera markatu dute: ohitura zaharrak, kultura joria, bertoko

kirolak... Izan ere, **The Basque Route** ez da paisaia ederrera mugatzen. Herritarrekin eta tradizioekin batzeko gonbita ere bada, kostaldeko arrantza-portuak eta barrualdeko herri nekazariak bisitatzera joateko.

Zer esanik ez, hiru hiriburuetan sartuko da. Bilbo nazioarteko arkiteturaren izen handiak bildu dituen abangoardiako metropolia da; Donostia fin eta paregabeak edertasunaz eta dotoreziaz liluratuko gaitu; eta Gasteizek ondare oparoaz eta mundu mailan itzala lortu duen plangintza urbanistikoaz gozatzeko aukera emango digu.

The Basque Route, beraz, errepide-bidaia handiak gogoan sortutako proposamena da eta bisitariak galdu ezin duen guztia dakar aldean: herriak, museoak, erakargarri turistikoak, natura-eremuak eta zokondo ikusgarri guztiak. Horietako batzuk Euskadiko herritar askorentzat ere ezezagunak dira.

Zalantzarik gabe, Euskadi leku egoki-egokia da denbora gutxian hamaika harribitxiz gozatzeko: paisaia aniztasuna, klima epela, kultura zaharra, sona handiko gastronomia... Hain leku txikian ezin liteke gehiago sartu. Ez da sarri gertatzen hainbeste altxor elkarren ondoan topatzea.

thebasqueroute.eus

turismo.euskadi.eus



ITSASORANTZ

Itsasadarraren eskuinaldetik, begiak aldaketa etengabea ari den paisaia postindustrialean iltzatuta dauzkagula, **Getxora** helduko gara. Kostaldeko udalerri honetako auzo batzuk, hala nola Areeta, Neguri edo Algorta, oso ezagun egin ziren XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran burgesiaren bizileku gisa. Hortaz, sarri-tan ikusiko ditugu han-hemenka jauregiak eta etxe handi dotoreak.

Itsasadarreraino joan behar dugu **Bizkaia zubia** bertatik bertara ikusteko. Herritarrek zubi esekia esaten diote. Eiffel dorrea gogora ekartzen duen burdinazko egitura garaiaik, atentzioa emateaz gain,



Atoiontzia, Bizkaia zubiaren azpitik.

duela ehun urte baino gehiagotik hona Areeta eta Portugaleteko ibarrak elkar lotzen ditu, hala oinezkoentzat nola ibilgailuentzat. Lanean ari den munduko transbordadore zubirik zaharrena omen da eta Unescok 2006an izendatu zuen gizateriaren ondare. Bere ontzitxoan uren gainetik bestaldera igarotzea edo burdinazko egituraren goiko aldetik ibiltzea gure begiek eta argazki kamerek gozatuko duten esperientzia polita da. Portugaleten alderdi zaharrak bisita merezi du eta bertatik Santurtziraino joan gaitezke, sardina erreka jatera esate baterako. Arrantzaleen Kofradiaren eraikinean Santurtzi Itsasoa Museoa dago, baita kresal usaina darion jatetxe ugarietako bat ere. Entzungo zenuen Santurtzitik Bilbora sardinak saltzen etortzen ziren arrain-saltzaileen kantu zaharra... Sardina freskue! Karmen egunean mila kilo sardina erre banatzen dituzte.

Algorta antzina herri arrantzalea izan zen eta gaur egun ere xarmaren parte bat gorde du itsaslabarretik gora igotzen diren etxe apainetan. **Portu Zaharra** leku bikaina da txibierroak jateko

Olatu erraldoiak

Urtero, udazken edo negu aldean, olatu handien nazioarteko surf txapelketa egiten dute Abra aldean, Europako bakarra. Punta Galea Big Challengean punta-puntako surflariak, hala bertokoak nola atzerritik etorritakoak, eta ikusle multzo handiak batu ohi dira. Galeako olatua luzea da, berrehun metro, tamaina handiari eusten dio eta hirurogei metro altu den labarraren onetan apurtzen da. Ikuskizun itzela.